



Arartekoaren 2021R-949-2021 ebazpena, 2021eko uztailaren 21ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari gomendatzen dio hondakindegri batekin lotutako dokumentuak eskuratzeko eskaera berariaz ebatz dezala.

Aurrekariak

- Pertsona batek, bere izenean eta Ekologistak Martxan elkartearen ordezkari gisa, kexa azaldu du Arartekoan Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak ingurumen arloko informazioaren eskaera bati emandako erantzunagatik.

Kexagileak adierazi du 2021eko apirilaren 2an Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari eskatu ziola, Euskadi.eus postontziaren bidez, Sondikako (Bizkaia) PREMABI hondakindegiarekin lotutako bi dokumentu eskuratzeko. Zehazki, Geo-lker fitxan (48904-00012 kodea) aipatzen diren bi txostenak aipatzen ditu:

- "9. jarduketa-unitatean burututako hondakinak induskatzeko proiektua", Ihobe SAK egindakoa.
- "EAEko hondakindegietan egindako lixibiatuen laginketa-kanpaina". Inguru, 2010eko abendua.

2021eko apirilaren 30ean, kexagileak erantzun bat jaso zuen Zuzenean zerbitzutik -Euskadi.eus postontzia-. Erantzun horrek IHOBE ingurumen-kudeaketako sozietate publikoaren administrazio-arloaren erantzun bat transkribatzen du, eta honako hau baino ez du adierazten: *"Galdera hori Ingurumen Jasangarritasun Sailburuordetzari egin behar zaio, arlo horretako organo eskuduna den aldetik"*.

Kexagileak Arartekora jo zuen, ordura arte emandako erantzun bakar horrekin ados ez zegoela adierazteko.

- 2021eko maiatzaren 17an, Arartekoak informazioa eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari aipatutako bi azterlanen kasuan ingurumen arloko informazioa eskuratzeko eskaerari erantzuteko egindako jarduketei buruz.





2021eko ekainaren 3an, Arartekoak eskatutako informazioa jaso zuen, Ingurumen Jasangarritasun Sailburuordearen jakinarazpen baten bidez. Honela dio hitzez hitz:

"Con fecha 23 de febrero de 2021 se recibe, a través del Registro electrónico General de la Comunidad Autónoma, solicitud de la Asociación Ekologistak Martxan para obtener la ficha Geoiker del emplazamiento con código 48904- 00012. En concreto se trata de una ficha correspondiente al emplazamiento denominado Vertedero PREMABI.

A pesar de que la solicitud no se formula a través del procedimiento general de acceso a la información establecido al efecto por la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco ni por el procedimiento fijado por el órgano ambiental, con fecha 25 de marzo de 2021 se remite la información solicitada y se señala que "No obstante, y a fin de agilizar la respuesta a posibles consultas que pudiera formular en un futuro, le informo que el procedimiento para solicitar información sobre emplazamientos que han soportado actividades o Instalaciones potencialmente contaminantes del suelo se debe realizar mediante consulta al registro administrativo de la calidad del suelo utilizando la plataforma ingurunet. El hipervínculo de acceso es el siguiente: <https://www.euskadi.eus/autorizacion/prevencion-y-correccion-de-la-contaminacion-del-suelo/web01-a2inglur/es/>. "

Con fecha 6 de abril de 2021 se recibe en el Servicio Zuzenean- Servicio de Atención Ciudadana solicitud de Asociación Ekologistak Martxan en relación con los documentos antes señalados. La solicitud se recibe, por tanto, en el buzón de Euskadi.eus. En la citada solicitud se indica que se trata de una solicitud de información.

En esa misma fecha la consulta se plantea a IHOBE, SA. Desde la citada Sociedad Pública se señala el 30 de abril de 2021 que la consulta debe dirigirse a la Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental como órgano competente en la materia.

Sin perjuicio de lo anterior, con fecha 4 de mayo de 2021, técnicos adscritos a la Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental remiten a la Asociación Ecologistak Martxan un mensaje por correo electrónico en el que se le indica de nuevo el link a través del cual puede realizar las solicitudes de información relacionadas con emplazamientos que soportan o han soportado actividades potencialmente contaminantes del suelo. Junto con el link se le remiten también "pantallazos" que reflejan de una forma visual las características de





la aplicación informática a través de la cual puede realizar dichas consultas, así como de "Micarpeta" para que pueda acceder a las respuestas remitidas.

En relación con este expediente de queja relacionado con el acceso a la información de carácter ambiental, debe recordarse que la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco, tiene por objeto establecer el marco normativo de protección del medio ambiente, determinando los derechos y deberes de las personas físicas y jurídicas.

(...)

En este marco, la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene habilitado un procedimiento denominado "Solicitud de acceso a información pública" y que este es el canal de solicitud adecuado para solicitudes como la de la Asociación. Se puede acceder a dicho procedimiento en el apartado "mi carpeta" de la sede electrónica del Gobierno Vasco. El link de este procedimiento es el siguiente <https://www.euskadi.eus/interaccion-ciudadania/acceso-a-la-informacion-publica/web01-tramite/es/>

Finalmente, debe indicarse que en el ámbito de la Comunidad Autónoma se procedió a la aprobación de la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, que entre otras cuestiones, regula el Registro Administrativo de la Calidad del Suelo.

Este Registro tiene por finalidad garantizar la seguridad jurídica y el derecho a la información en materia de protección del suelo. En este sentido, contiene toda la información que se obtenga en aplicación de los procedimientos en materia de calidad de suelo.

En concreto, el artículo 48.3 de la norma establece que El órgano ambiental de la Comunidad Autónoma emitirá certificaciones de los extremos que consten en el registro y que a tal efecto le sean solicitadas en los términos previstos en la legislación sobre derecho de acceso a la información en materia de medio ambiente, sin perjuicio de lo que establece la legislación sobre protección de datos de carácter personal.

Conforme a lo anterior, con fecha 25 de marzo de 2021, el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma, al contestar a la solicitud de información que precisamente ha motivado (tras revisar el solicitante la información facilitada por este órgano) la nueva consulta objeto de la presente queja, ya indicó a la Asociación Ekologistak Martxan que las consultas a realizar en el futuro se debían tramitar mediante consulta al registro administrativo de la calidad del





suelo utilizando la plataforma ingurunet, señalándose concretamente el hipervínculo de acceso a dicho trámite.

No obstante lo anterior, la solicitud realizada con fecha 6 de abril de 2021 por la Asociación Ekologistak Martxan no se formuló ni a través del procedimiento de consulta al registro administrativo de la calidad del suelo ni por el procedimiento de acceso a la información de carácter general implantado por la Administración General de la Comunidad Autónoma.

En este marco, este órgano considera necesario reiterar, tal y como ya indicó en un expediente de queja anterior iniciado por esa institución, que a fin de evitar que solicitudes de acceso a la información queden desatendidas, es necesario que todas las personas físicas o jurídicas que soliciten información a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco utilicen los cauces establecidos a tal efecto".

Beraz, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak dio informazio publikoa eskuratzeko eskaerak aurkezteko bide telematikoa egokia Eusko Jaurlaritzaren web orrialdean dagoena dela; eta bertan "Informazio publikoa eskuratzeko eskaera" izeneko prozedura jasotzen dela.

Bestalde, ingurumen arloko informazioaren kasuan, administrazio horrek adierazten du interesdunek beste bide bat dutela, Ingurunet plataformaren bidez, Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroarekin lotutako kontsultak egiteko aurreikusitako izapidearen bidez.

Kasu horretan, txostenak ondorioztatzen du 2021eko apirilaren 6an egindako eskaera ez zela berariaz ebatzi, ez zelako lurzoruaren kalitatearen administrazio-erregistroarekin lotutako kontsultak egiteko prozeduraren bidez egin, ez eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ezarritako informazio orokorra eskuratzeko prozeduraren bidez ere. Hala, berretsi egiten du kexagileari bidalitako erantzun bakarra 2021eko apirilaren 30eko idazkia izan zela. Idazki horretan, IHOBEn zerbitzuak adierazten zuen kontsulta Ingurumen Jasangarritasun Sailburuordetzari zuzendu behar zitzaiola, arlo horretako organo eskuduna den aldetik. Era berean, kexagilearekin harremanetan jarri da, Ingurunet plataformaren bidez eskabidean parte hartzeko.

Balorazio hori kexagileari helarazi ondoren, berriz adierazi du ingurumen arloko informazioa, eskatutako azterlanetan jasotakoa, publikoa dela; eta bere eskaera dagoeneko bidali zaio berariaz Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen,





Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari, herritarrentzako informazio- eta kontsulta-eskaerak egiteko aurreikusitako bidearen bidez (Euskadi.eus postontzia).

Erreklamazio hori ikusita, kexaren planteamendua eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak igorritako informazioa aztertu ondoren, Arartekoari egoki iruditu zaio honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Administrazio onerako eskubidea, informazioa eskuratzeko prozedura administratiboetan. Adierazi behar da administrazio publikoek, herritarrekin dituzten harremanetan, jarraitutako izapideen trazabilitate egokia bermatu behar dutela, dagokion prozedura administratiboaren bidez.

Prozedura administratibo orokorrak ezartzen ditu administrazio-jarduera administrazio onaren irizpideen arabera antolatzeke, izapidetzeko eta fiskalizatzeko kontuan izan beharreko jarraibideak.

Horrela, herritarrek administrazio onerako duten eskubideak berekin dakar administrazio publikoek prozedurarako eskubidea bermatzeko duten betebeharra; eta horrek, gutxienez, honakoa dakar: haien aurrean aurkezten diren idatzien hartu-agiria jasotzea; dagokion prozedurako ofiziozko bultzada ematea; eta planteatutako kontu eta errekurtso guztiei zentzuzko epean erantzun beharra modu egokian eta arrazoituan.

Prozedura administratiboaren eskubidea interesdunak diren herritar orori dagokie; edo, gaia dela eta, ekintza publikoa gauzatzeko aitorpena daukatenei, ingurumenaren esparruan aurreikusita dagoen moduan. Auzitegi Gorenaren hitzetan, uztailaren 23ko 3601/2015 Epaian, interesdunek prozedura administratiborako eskubidea dute: *«prozedura hastea bidezkoa den ala ez erabakitzeke betebeharra ezartzeari dagokionez, ezin dira geratu babesik gabe eta Administrazioaren borondate askearen kontura; horixe gertatuko litzateke ezinbestean eta erremediorik gabe, baldin eta Administrazioak, bere jarduerarik ezarekin bakarrik, denbora-mugarik gabe atzeratu ahal izango balu erantzuna jasotzeko eskubidea duten eskaerei buruzko erabakia. Prozedurari buruzko azken ebazpena aurrez epaitu gabe, beharrezkoa da, beraz, berme-bide bat antolatzea, kasu horietan partikularren eskubideen eraginkortasuna zaindu eta bermatzeko».*

Hortik ondorioztatzen da administrazio publikoei zuzendutako idazkiak herritarrekiko sarbide eta komunikazio-bide desberdinen bidez aurkezteko, beti eta





nolanahi ere, administrazio-izapideak egin behar direla Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako eran. Horrek ez du esan nahi idazkiek eta eskaerek gutxieneko betekizun batzuk behar ez dituztenik, administrazioak idatziaren sustatzailearen borondatea ezagutu ahal izan dezan eta bere eskubideen erabilera berma dezan. Kasu horretan, prozedura-arau honek, 66. artikuluan, administrazioari zuzendutako eskaerek eskatzen dituzten oinarrizko eskakizunak ezartzen ditu interesdunak eskatuta prozedura hasteko.

Horri dagokionez, edozein eskaera edo instantzia onartzea ahalbidetzen duen prozeduraren izapidetzea inspiratzen duen printzipio antiformalista aipa daiteke. Urriaren 1eko 39/2015 Legean ez dago bide informalik, baina haren zioen azalpenak espiritu antiformalista aldarrikatzen du. Eta espiritu hori, gainera, xedapen askotan zehazten da; adibidez, agintzen dutenean eskaera edo errekurtsio bat egiteko modua (izena edo egitura) ez dela oztopo izan behar haiek aurrera egiteko, betiere haren edukitik interesdunaren asmoa nahikotasunez ondoriozta badaiteke.

Gauzak horrela, xedea ez zehazteak edo aurkezpen-formatu desegoki baten bidez bidaltzeak, hala nola posta elektronikoz edo administrazioaren aurreko beste erreklamazio-bide batzuen bidez zuzenean bidaltzeak, ez du izan behar izapidetzean bultzadarik ez emateko arrazoia, ez eta administrazio publikoek erantzunik ez emateko edo isilik egoteko arrazoia ere.

Alde batetik, eskabideak zalantzak sor baditzake herritarren uziaren edo kalifikazio administratiboaren xedeari buruz, administrazio publikoak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako bidea jarraitu behar du eskaera zuzentzeko edo hobetzeko.

Bestalde, prozedura edo bide desegokien bidez egindako eskaeren aurrean, administrazioak ofizios bideratu behar du herritarren uzia dagokion prozeduran. Uzia, arrazoi zehatzen batengatik, ez bada bidezkoa, administrazioak eskatutakoa ez onartzea erabaki behar du; eta erabaki horren berri eman behar dio berariak interesdunari, jakinaren gainean egon dadin edo errekurtsioa aurkez dezan.

Administrazioak ezin dio inola ere ebazpena emateari uko egin isiltasuna, iluntasuna edo kasuan-kasuan aplikagarriak diren legezko aginduen hutsunea aitzakiatzat hartuz.



Are gehiago, herritarrei beren eskubideak erabiltzen laguntzeko betebeharra dago. Kasu horretan, gogora ekarri behar da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53.1.f) artikuluaurreikuspena, *"Indarreen dauden xedapenek egin nahi diren proiektu, jarduera edo eskaerei ezartzen dizkieten betekizun juridiko edo teknikoei buruzko informazioa eta orientazioa lortzeko"* eskubidea arautzen duena.

Halaber, administrazio elektronikoaren esparruan, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 12. artikulua ezartzen du administrazio publikoek bermatu egin behar dutela interesdunek administrazioarekin harremana bitarteko elektronikoaren bidez izateko aukera. Horretarako, administrazio publikoek bitarteko elektronikoak erabiltzen lagunduko diete hala eskatzen duten pertsona fisikoei. Horrela, beren eskura jarriko dituzte behar diren sarbideak, bai eta kasu bakoitzean zehazten diren sistemak eta aplikazioak ere.

Administrazio onaren printzipio horiek erreklamazioan azaldutako kasua bezalakoak ere aplika dakizkieke; esaterako, pertsona batek administrazioaren esku dauden bi dokumenturi buruzko informazioa eskuratzeko eskaera egin duenean - herritarrentzat prestatutako plataforma baten bidez- eta, erantzun gisa, mezu elektroniko bat eta ingurumen-administrazioaren erregistro batera sartzeko inprimaki berri batera bidaltzea baino ez duenean jaso.

2. Ingurumen arloko informazioa eskuratzeko eskubidea. Oro har, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. artikulua arautzen du espediente eta erregistro publikoak osatzen dituzten agiriak eskuratzeko; eta honako eskubide hau aitortzen die herritarrei: *"Informazio publikora, artxiboetara eta erregistroetara irispidea izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera."*

Horri buruz aipatu behar da, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa) 13. artikuluan adierazten duela informazio publikoaren eskubidearen edukia administrazio horren esku dauden dokumentuei buruz ari dela (haien formatua edo euskarria edozein izanik ere), bere funtzioak betez egin edo eskuratu direnak.

Abenduaren 9ko 9/2013 Legearen 20. artikulua arabera, informazio hori eskuratzeko eskaera onartzen edo ukatzen duen ebazpena, *"gehienez ere, hilabeteko epean"* jakinarazi beharko zaio eskatzaileari, ebazteko eskumena duen





organoak eskaera jasotzen duenetik. Epe hori beste hilabetez luzatu ahalko da, eskatutako informazioaren bolumena edo konplexutasunagatik hori beharrezkoa bada, eta alde zuzenetik eskatzaileari jakinarazita.

Legeriak horren inguruko zenbait berme ezartzen ditu. Informazio-eskaera bat zehaztasunik gabe egiten denean, agintaritzak publikoak eskatzaileari eskaera zehazteko eskatuko dio; eta informazio-eskaera ahalik eta azkarren zehazteko laguntza eskainiko dio, gehienez ere hilabete epean iraungi aurretik egin dadin. Bestalde, agintaritzak publikoak eskatutako informazioa ez duenean, eskaera informazio hori duen administrazioa edo agintaritzara bidali beharko du, eta horren berri emango dio eskatzaileari. Hori egitea ezinezkoa denean, eskatzaileari zuzenean esan beharko dio zein agintaritzak publikoari jo behar duen, dakienaren arabera, informazio hori eskatzeko.

Edonola ere, ebazpena emateko gehienezko epearen baitan, derrigorrez, informazioa eskuratzeko eskaerari buruz arrazoitutako ebazpena eman beharko da; eta bertan, eskatutako informazioa eman beharko da edo eskatzaileari zehazki jakinarazi beharko zaio zergatik ez den informazio hori emango. Ebazpenak Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 20. eta 88. artikuluetan jasotako aurreikuspenak bete beharko ditu. Horiek erabakia arrazoitzea eta ebazpenaren aurka jar daitezkeen errekurtsoak adieraztea eskatzen dute. Zehazki, administrazio ebazpen horretan kontuan izan beharko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 24. artikuluan ezartzen den bezala, autonomia erkidego bakoitzean eskuduna den Gardentasun eta Gobernu Onerako Batzordean erreklamazio bat jartzeko aukera. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, informazio publikoa eskuratzeko Euskal Batzordearen 128/2016 Dekretuak ezarri duenez, batzorde horri dagokio aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunak eta toki-erakundeak barnean dauden herri-administrazioen edo euskal sektore publikoko gainerako erakundeak berariazko edo ustezko ukapenei dagokienez.

Abenduaren 9ko 19/2013 Legeak lehen xedapen gehigarri bat du, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari buruzko erregulazio berezietara jotzen duena, hala nola ingurumenari buruzko informazioa; eta, nolabait ere, lege horretako erregulazioek izaera osagarria dute.

Kasu horretan, ingurumen arloko informazioa eskuratzeko eskubidea uztailaren 18ko 27/2006 Legeak arautzen du. Lege horrek ingurumen arloko informazioa





eskuratzeko, parte-hartze publikorako eta justiziarako eskubideak arautzen ditu, ingurumen-arloan. Kasu horretan, 27/2006 Legearen 10. artikuluan ingurumen informazioari buruz egindako eskaerak izapidetzeko prozedura dago ezarrita. Eskatutako ingurumen informazioa emateko edo ezezkoaren arrazoiak jakinarazteko epeari dagokionez, arau horrek eskatzen du *“ahalik eta lasterren”* egin behar dela, eta, beranduenez, hilabeteko epean, eskaera ebazteko eskumena duen agintaritza publikoaren erregistroan jasotzen denetik zenbatzen hasita. Nolanahi ere, xedapen horrek epea luzatzeko aukera ematen du, baldin eta informazioaren bolumena eta konplexutasuna direla-eta ezinezkoa bada adierazitako epean betetzea. Kasu horietan eskatzaileari jakinarazi beharko zaio epea luzatu egingo dela (gehienez, beste hilabete batez).

Ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskaera aipaturiko 27/2006 Legearen aurreikuspenen barruan sartzen da. Lege horrek 2003ko urtarrilaren 28ko 2003/4/EE Zuzentarauaren transposizioa egiten du (zuzentarau hori jendeak ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeari buruzkoa da). Europar Batasuneko Zuzenbidearen aplikazio-eremuaren barruan, 2003/4 Zuzentarau horren 3.3 artikulua adierazten du, eskaera bat orokorregia denean, agintaritza publikoak eskaera hori zehazteko eskatuko diola eskatzaileari eta hori egiten lagunduko diola (adibidez, erregistro publikoen erabilerari buruzko informazioa emanez). Zuzentarauaren 3.5 artikulua kasuan, adierazten da agintari publikoek zuzentarauak ematen dizkien eskubideei buruzko informazioa behar bezala eman behar diotela jendeari.

2003/4 Zuzentaruako aurreikuspen horiek zehaztu eta zabaldu egiten dute akatsak zuzentzeko eskubidea, bai eta 39/2015 Legeak prozedura administratibo batean eskatzaileei horretarako ematen dien bidea ere; izan ere, agintari publikoen betebeharrak proaktiboak ere ezartzen dute eskaera egiteko moduari buruzko orientazioa emateko orduan.

Bestalde, Europar Batasuneko Zuzenbidean babestutako ingurumen arloko informazio-eskaerak baliokidetasun-printzipioa eska dezakete prozedura administratibo orokorrak jasotzen dituen aurreikuspenak aplikatzeko, hala nola aurkeztutako informazio-eskaerak izapidetu eta horiei erantzuteko betebeharrak, zioen azalpenaren ondoriozko espiritu antiformalista eta aurkako ebazpenen aurkako errekursoak aurkezteko eskubidea aitortzea.

Horri dagokionez, aipatzekoa da Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaia, C-280/18 gaiari dagokiona (Flausch eta beste batzuk), 2019ko azaroaren 7koa. Epaia horrek dioenez, estatu kideek beren betebeharrak betetzeko jarraitu behar dituzten prozedurei dagokienez Europar Batasuneko Zuzenbideak ezarritako araurik ez





dagoenez, estatu kide bakoitzaren barne-ordenamendu juridikoari dagokio prozedura horiek arautzea; betiere barne-izaerako antzeko egoerak arautzen dituztenak baino onuragarriagoak ez badira (baliokidetasun-printzipioa), eta praktikan edo zailtasun handiegirik gabe Batasuneko ordenamendu juridikoak emandako eskubideak erabiltzea eragozten ez badute (eraginkortasun-printzipioa).

EBJAren epaian, C-71/14 gaiari dagokionean (East Sussex County Council), 2015eko urriaren 6koan, honako hau adierazten da: "Estatu kideek bermatuko dute informazio-eskatzaile guztiek prozedura baterako sarbidea izatea; eta, prozedura horretan, dagokion agintaritza publikoaren egintzak edo ez-egiteak berraztertu ahal izango ditu agintaritza publiko horrek edo beste batek, edo administrazioaren bidez errekurritu ahal izango dira legez sortutako erakunde independente eta inpartzial baten aurrean". Azken printzipio horri dagokionez, gogoratu behar da, halaber, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 47. artikulua babes judizial eraginkorrerako eskubidea ematen duela.

Ondorioz, informazio publikoa eskuratzeko (eta, bereziki, ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko) prozedura espezifikoa bat dute, eskubidea azkar eta lehenetsunez erabiltzea bermatzea ahalbidetzen duena. Horretarako, legeriak ebazpena emateko epe jakin batzuk ezarri ditu eta horiek, gehienez ere, hilabetekoak izan daitezke, erantzuna emateaz arduratzen den erregistroan eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita. Salbuespen gisa, epe hori beste hilabetez berariaz luzatu ahal izango da, aldez aurretik eskatzaileari jakinarazita.

3. Informazio publikoa eskuratzeko bideak. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren erantzunean aipatzen den bezala, Eusko Jaurlaritzak informazio publikoa eskuratzeko eskaerak aurkezteko aurreikusitako bide telematikoa honako hau da: "[Informazio publikoa eskuratzeko eskaera](#)".

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak egoitza elektronikoa prestatutako bide horren bidez, edozein pertsona fisikok edo juridikok erabil dezake administrazio horren esku dagoen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

Kasu horretan, web orrialdeak eskuratzeko prozesu hori deskribatzen du, eta honako bide hauek adierazten ditu:

- Eusko Jaurlaritzaren [Gardentasun Atarirako \(GARDENA\)](#) esteka baten bidez (horrek [Informazio publikoa eskuratzeko eskaera](#) egiteko prozedura berera birbidaltzen du).





- [Euskadi.eus informazio orokorreko postontzia](#)ren bidez. Kexaren sustatzaileak erabili du bide hori. Harremanetarako bide informal gisa definitzen da kexak edo iradokizunak aurkezteko edo informazioa argitara dadila eskatzeko. Kasu horietan, kexa, kontsulta edo iradokizun kontzeptua administrazio publikoek gaur egun asko erabiltzen duten baliabidea da; eta herritarrek gai publikoetan parte hartzeko bide gisa balio du. Normalean, web bidea edo posta elektronikoa bezalako bideen bidez bideratzen da. Bide informal hori ez da erabili behar beste prozedura administratibo batzuetako dokumentuak aurkezteko, ziurtagiriak eskatzeko, espediente pertsonalak kontsultatzeko edo zuzentzeko...

- Bestalde, [erregistro elektronikoa orokorra](#) aipatzen da eskuratze formalerako modu orokor gisa. 39/2015 Legearen 16. artikulua arabera, administrazio bakoitzak Erregistro Elektronikoa Orokor bat izango du, erabat elkarrengarria izan beharko dena eta gainerako administrazio-erregistroekin interkonektatuta egon beharko dena. Kasu horretan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eskatzen dituen formalitateekin, Legearen 66. artikuluan aurreikusitakoekin (identifikazioa, helbidea, etab.) aurkeztu beharko da eskuratzeko eskaera; eta araudiak adierazten dituen bideetako baten bidez egin beharko da (administrazioaren erregistro presentziala edo telematikoa, posta-bulegoak edo udal-bulegoak).

Hala ere, zehaztu behar da "[Informazio publikoa eskuratzeko eskaera](#)" prozedura orokorrak ez duela inolako loturarik edo ohartarazpenik jasotzen [Ingurunet](#) plataformaren bidez ingurumen arloko informazioa eskuratzeko aukerari buruz; hori izango litzateke Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak [Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroarekin lotutako kontsultak](#) egiteko aurreikusitako prozedura.

Informazio publikoa eskuratzearen eta ingurumen arloko informazioa eskuratzearen arteko lotura edo birbideratze falta horrek zailtasuna ekar diezaiokie euskal administrazioaren esku dauden dokumentuak eskuratu nahi dituen eta euskal administrazio orokorrak aurreikusitako *ad hoc* prozedura erabiltzen duen herritarrari ingurumen arloko informazio hori eskuratzeko. Kasu honetan, bereziki, web orrialdean aurreikusitako prozedura orokorrak aukera ematen du [Euskadi.eus informazio orokorreko postontzia](#)ren bide informalaren bidez egiteko.

Horri dagokionez, komeni da gogoraraztea [Ingurunet](#) plataforma izateak ez duela esan nahi herritarrak ezin dituenik administrazioak berak irekitako beste bide batzuk aukeratu dagoen informazioa eskuratzeko eskaera formala edo informala egiteko.





Inola ere ez litzateke justifikatuko ingurumen arloko informazioa eskuratzeko sistema baten diseinuak, kasu honetan lurzoruaren kalitate-erregistroari buruzkoa soilik, prozedura administratiboaren betebeharren betetzearen eta bermeen murrizketa ekartzea.

Hori dela eta, administrazioak eskuratzeko eskatzeko prestatutako tresna eta bide guztiek, formalek zein informalek, bermatu egin behar dute lehenengo puntuan adierazitako administrazio onaren printzipioak betetzen direla. Printzipio horien arabera, administrazioak berriazko erantzuna eman behar du, epe oso laburrean, eta egindako eskaerarekin bat etorriz.

Hori litzateke plataforma digitalek ahalbidetzen dituzten bide informalaren erabileraren kasua; izan ere, eskaera bat prozedura-legediaren arabera egitea eskatzen ez duten arren, administrazioek berriazko eta informaziozko erantzuna eman behar dute arrazoizko epe baten barruan.

Horregatik, Arartekoaren iritziz, bide informal baten bidez (Euskadi.eus postontziaren bidez informazioa eskuratzeko prestaturikoa, esaterako) bidalitako informazio-eskaera baten aurrean, dokumentazio hori duen Eusko Jaurlaritzako Sailak espresuki erantzun behar dio eskaerari; eta dokumentazioa eskuratzeko aukera eman behar du edo eskuratzeko eragozten duten arrazoizko tasatuak zein diren adierazi beharko du.

4. Informazio publikoa eskuratzeko eskaeraren edukia eta lurzoruaren kalitate-erregistroa. Kasu horretan, eskaera horren xedea da GEOIKER lurzoruaren kalitatearen informazio-sisteman sartutako PREMABI hondakindegia fitxan aipatutako bi dokumentu eskuratzeko. Zehazki, eskatutako dokumentazioa IHOBE SAK hondakinak induskatzeko egindako proiektu bati eta Inguruk 2010ean EAEko hondakindegietan egindako lixibiatuen laginketa-kanpainari buruzkoa da.

Horri dagokionez, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 2.3 artikulua ingurumen arloko informaziotzat kalifikatzen ditu ingurumen-elementuei eragiten dieten edo eragin diezaieketen hondakinei buruzko dokumentazio guztia, hondakin horiei eragiten dieten edo eragin diezaieketen administrazio-neurriei buruzkoa, bai eta ingurumen-legeria gauzatzeari buruzko txostenak ere.

Ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidean sartzen dira administrazioaren esku dauden eduki edo dokumentuak, edozein formatu edo euskarritan daudela ere. Kasu horietan, informazioa administrazio-espeditente jakin baten parte izan daiteke, edo ingurumen-kontrolako funtzioak betetzean landu edo bildu daiteke.





Hala, bereizi egin beharko lirateke bere esku dagoen ingurumen arloko informazioa eskuratzeko eskubidea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroan inskribatutako egintzak kontsultatzeko edo egiaztatze eskubidea.

Kasu honetan, Autonomia Erkidegoko ingurumen-organismoak prozedura espezifiko bat ezarri du, [Ingurunet](#) plataformaren bidez, [Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroarekin lotutako kontsultak](#) aurkezteko. Hori horrela, urtarrilaren 21eko 4/2020 Dekretuak, ingurumeneko prozedura administratiboetan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzen duenak, adierazten du Ingurumen Sailaren informazio-sistema, Ingurunet, ingurumen-intereseko arrazoiren batengatik erregistratu behar diren egintzak edo datuak inskribatzeko edo erregistratzeko tresna dela.

Kasu horietan, ingurumen-organismoari kontsulta egiteko eskubideak aukera ematen du erregistroan sartutako kokalekuei buruz erregistroan jasota dauden alderdien ziurtagiriak lortzeko, lurzoruaren kalitateari buruzko prozedurak aplikatuz. Era horretan, uztailaren 18ko 27/2006 Legetik eratorritako betebeharrak betetzeko euskarri ere izan daiteke plataforma hori, administrazio-espeditate horietarako sarbidea dagoenean.

Hala ere, [Euskadi.eus informazio orokorreko postontziaren](#) bide informala bidez aurkeztutako uziari erantzunik eman ez zaionez, ezin da bereizi kexagilearen uziaren xedea, bi azterlan tekniko zehatzak, lurzoruaren kalitatearen arloko prozedura administratiboren baten ondorio diren edo beste izapide edo prozedura orokorrako batzuekin lotuta landu edo bildu diren (adibidez, EAEko hondakindegietako lixibiatuen laginketa-kanpainarekin).

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11. b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Arartekoak gomendio hau egin nahi du:

Gomendioa:





Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari gomendatzen dio berehala eta berariaz ebatz dezala kexagileak hondakindegri batekin lotutako dokumentuak eskuratzeko [Euskadi.eus informazio orokorreko postontzia](http://Euskadi.eus/informazio-orokorreko-postontzia)ren bide informala bidez egindako eskaera.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak uztailaren 18ko 27/2006 Legean eta abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitako epe eta baldintzetan erantzun beharko dio eskaerari.

Azkenik, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari iradokitzen dio formula bat susta dezala interesdunek [Euskadi.eus informazio orokorreko postontzia](http://Euskadi.eus/informazio-orokorreko-postontzia) bidez aurkezten dituzten ingurumen arloko informazioko eskaerak birbideratzeko, erantzun egokia eta azkarra bermatzeko.

